

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“N-102 errepidea 343,490 km-tik 348,140 km-raino egokitzeko, ezkerretarako biraguneak kentzeko eta sarbideak berrantolatzeko eraikuntza-proiektua” -k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2021eko ekainaren 18an, 504/2021 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Handitzea “N-102 errepidea 343,490 kilometro puntutik 348,140 kilometro puntura arte egokitzeko, ezkerretarako biraguneak kentzeko eta sarbidea berrantolatzeko eraikuntza proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 8ko 62/2000 Erabakiaren bidez, N-102 errepidea 343,490 kilometro puntutik 348,140 kilometro puntura arte egokitzeko, ezkerretarako biraguneak kentzeko eta sarbidea berrantolatzeko eraikuntza proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi zen.

Desjabetze espedientearen izapideak Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozedura bidez egin ziren.

Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko apirilaren 7an, eta honako hau adierazi zuen:

“Gasteizko Gotzaindegia ordezkaritza den Carlos García Llataren idazkia jaso da (sarrera data: 2020ko otsailaren 11). Bertan azaltzen denez, Gasteizko Gotzaindegia Vitoria-Gasteizko 10 poligonoko 371 landa lurzatiaren jabea da, zeina N-102 errepidearen jabari publikoko eremuaren ondoan baitago.

Adierazten duenez, orain arte jabari publikoko eremu hori Jundizko industrialdea inguratzen duen errepidetik lurzatiara sartzeko erabiltzen zen, ez baitago beste sarbiderik. Hala ere, duela gutxi, Arabako Foru Aldundiak hesi bat jarri du bidearen perimetroan N-102 autobia ixteko, eta horrek lurzatiara sartzeko galarazten du.

Horregatik, bide-zor bat eratzeko eskaera egiten du, 371. lurzatiaren alde, aldameneko 370 lurzatiaren bidez lurzatiarako sarbide iraunkor bat ezartzeko.

Gaia aztertu ondoren, honako hau adierazi behar dugu:

“N-102 errepidea 343,490 kilometro puntutik 348,140 kilometro puntura arte egokitzeko, ezkerretarako biraguneak kentzeko eta sarbidea berrantolatzeko eraikuntza proiektua”k Gasteizko 10 poligonoko 371 lurzatiari eragin zion, eta 1998/322 desjabetze espedientearen 89/000 finka zenbakiarekin identifikatu zen.

Eskatzaileak dioen bezala, gaur egun lurzatiak ez du ibilgailuentzako sarbide zuzenik, eta, beraz, orain dela gutxira arte sarbidea ez zen behar bezala egiten, Jundizko Goikoberaza kaletik sartuta N-102 errepidearen jabari publikoko eremua eta Gasteizko 10 poligonoko 507 lurzatia zeharkatzen baitziren, eta ez da horretarako bide-zorrik eratu.

Era berean, bide segurtasuneko arrazoiak direla medio, orain dela gutxi errepide horren perimetro itxitura jarri da, eta horrek, nolahi ere, finkara igarotzea eragozten du.

Bestalde, adierazi behar da ibilgailuentzako sarbiderik ez izatearen arazoa ez dela soilik 371 lursailarena; izan ere, horretaz gain, nekazaritzako zenbait lurzati ere ez dute ibilgailuentzako sarbide zuzenik gertuko ezein bidetatik. Zehazki, 369, 370 eta 440 lurzatiak dira. denak Vitoria-Gasteizko 10 poligonokoak.

Gaia Zuhatzuko Administrazio Batzarrarekin aztertu ondoren, eta aukerarik ez duten lurzatiei sarbidea emateko aukera guztiak aztertu ondoren, irtenbide egokiagotzat jotzen da ezartzea horietarako guztietarako sarbidea Goikoberaza kaletik egitea, hain zuzen, Paduleta kalearekiko elkargunearen ingurutik, Gasteizko 10. poligonoko 506 lurzatia hartzen duen berdegunea zeharkatuz, erantsitako planoaren arabera. Esan behar da Zuatzuko Administrazio Batzarrak Gasteizko Udalak igorri dion idazkia aurkeztu duela (erregistro data: 2021eko martxoaren 9a). Idazkiaren arabera, udal horrek ez du eragozpenik berdegune horretatik igarotzen uzteko, aipatutako lurzatiatar errazago sartze aldera, Foru Aldundi honek egin beharreko jarduketaren proiektua jaso arte, eta behin betiko oniritzia emateko.

Adierazi behar dugu Arabako Foru Aldundiak dagoeneko bidali diola udal horri proposatutako sarbideari buruzko dokumentazioa, eta, horren ondorioz, 5,00 metroko zabalerako bide-zor iraunkorra ezarriko zaiela Gasteizko 10 poligonoko 370 eta 440 lurzatiei.

Beraz, azaldutako guztiagatik, Gasteizko 10 poligonoko 370 eta 440 lurzatiatan 5,00 metroko zabalerako bide-zorra eratzea proposatzen da, bi lurzatiaren alde, 369 lurzatiaren eta titularrak eskatutako 371 lurzatiaren alde.

Horretarako, 88/100 eta 88/200 finkak sortzea proposatzen da. Finken definizio geometrikoa bat dator erantsita dagoen 1/2000 eskalako planoarekin. Datu horiek txosten honekin batera doan taulan daude jasota."

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondatsunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatzeko aukera proiektuari ez ezik, desjabetzea handitzeari ere aplikatzen zaiola, eta, beraz, bidezkoa da eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak presako prozeduraren bidez egitea.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak aztertuta, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea "N-102 errepidea 343,490 kilometrotik 348,140 kilometrora arte egokitzeko, ezkerretarako biraguneak kentzeko eta sarbidea berrantolatzeke eraikuntza proiektua"ren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda, Eranskinean adierazitakoarekin bat etorriz.

Bigarrena. Adieraztea handitze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko eta bide-zorra ezartzeko.

Hirugarrena. Izapidetzea, premiazko prozedura bidez, ondasun eta eskubide zerrenda handitzea. Ondasun eta eskubide horiek Eranskinean adierazten dira.

Laugarrena. 1.718,14 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021ko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-2101/000.21.1.21), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Seigarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Vitoria-Gasteizko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 6a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Varias y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

N-102 ERREPIDEA 343,490 KM-TIK 348,140 KM-RAINO EGOKITZEKO, EZKERRETIARAKO BIRAGUNEAK KENTZEKO ETA SARBIDEAK BERRANTOLATZEKO ERAKUNTZA-PROIEKTUA
CONSTRUCCION DE ACONDICIONAMIENTO, ELIMINACION DE GIROSA LAIZQUIERDA Y REORDENACION DE ACCESOS EN LA CRTA. N-102. P.K. 343,490 A P.K. 348,140

Esp./Expte. 1998-322-H

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA ZORTASUNA (BIDEA 5 m)	ORDUA	
		POLIGONOA	LURZATIA					EGUNA
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TÉRMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA SERVIDUMBRE (PASO 5 m)	DÍA	HORA
		POLIGONO	PARCELA					
88/100	JESÚS GRISALENA DIAZ DE OTALORA L. DE H. CONSULTORES S.L. FAUSTINO LÓPEZ DE FORONDA SUSAETA	10	440	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	324	1/9/21	10:00
88/200	JESÚS GRISALENA DIAZ DE OTALORA L. DE H. CONSULTORES S.L. FAUSTINO LÓPEZ DE FORONDA SUSAETA	10	370	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	310	1/9/21	10:00